ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 2a, astelehena • 126 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak emandako 2026ko urriaren 23ko Dekretuaren laburpena, zeinak onesten dituen Aiarako udalerriko administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko deialdia 2026ko obren eta ordainsari teknikoen gastuetarako

BDNS(Identif.): 937599.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/937599).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Aiarako udalerriko administrazio batzar guztiak.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da arautzea Aiarako udalerriko administrazio batzarrei 2026ko ekitaldirako dirulaguntzak ematea, helburu jakin baterako, obrak egiteko eta haien ordainsari teknikoak ordaintzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen 2026ko urriaren 23ko 2026-645 Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Oinarri arautzaileak obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarreidirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan jasota daude. 2018ko otsailaren 28ko ALHAOn (25 zk.) argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzak emateko prozedurari jarraikiz, eta dirulaguntzaren beraren izaera kontuan hartuta, dirulaguntza honetara bideratutako gehieneko zenbateko orokorra proportzionalki banatuko da onuradunen artean, oinarri hauetan ezarritako mugekin. Udalaren 2026rako aurrekontuan, gastu aurrekontuko esleipen hauek dira muga:

Partida: 943.734000: 35.000,00 euro.

Partida: 943.734001: 35.000,00 euro.

Administrazio batzar bakoitzak obra bakarrerako eskatu ahalko du dirulaguntza. Deialdiaren oinarrietan zehaztutako obra motarako eskatu ahalko da laguntza.

Dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, oinarrizko azpiegitura obrak lehenetsiko dira (3.1.2.a oinarrian jasotakoaren arabera), eta kontuan hartuko da obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoa.

Deialdiaren oinarrietan zerrendatutako ordainsari teknikoen ehuneko berrogeita hamar lagunduko da diruz. Administrazio batzar bakoitzak dirulaguntza eskatu ahalko du nahi adina ordainsari estaltzeko. Hala ere, dirulaguntzaren urteko muga 6.000,00 eurokoa izango da, administrazio batzar bakoitzeko, aurkeztutako eskari guztietarako.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Halako laguntzetara esleitutako aurrekontu aplikazioaren gehieneko zenbatekoarekin ezin badira erantzun aurkeztutako eskari guztiak, obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarreidirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2026ko urriaren 23a

Alkatea
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.02 06:51:16 Z